



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunerako
Euskal Fundazioa



RASFF TXOSTENA

ELIKAGAIAK

ALERTAK - JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria


Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak

2019ko LEHENENGO LAUHILEKOA


JAKINARAPENEN KATEGORIZAZIOA

2019ko lehenengo lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko 1235 jakinarazpen izan dira. Horietatik 328 alertak izan dira (%26,5), 440 informazio-jakinarezpenak (%35,5) eta 467 mugan egin diren ukapenak (%38).



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **26,5a Turkiakoak** eta beste hainbat **Txinakoak**. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdea **Polonia** izan da, % **15**arekin. Afrikaren kasuan, **Sudanek**, jakinarazpenen %**37** izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **EEBB %33a** eta **Brasil %24,5arekin** dira jakinarazpen gehien sortu dituztenak.

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2019ko 1. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1235 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturrirei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturria	%
Kutsadura biologikoa	% 29,5
Iruzurrak	% 20
Mikotoxinak/biotoxinak	% 17,5
Hondakinak	% 11,5
Kutsadura kimikoa	% 8,5
Produktuaren egoera higieniko txarra	% 5
Kutsadura fisikoa	% 4,5
Metal astunak	% 3,5



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIAK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, **% 84**an, kutsadura **AFLATOXINEK** eragindakoa da eta, horrelakoetan **KAKAHUETEA** kutsaduren **% 51**a eragin du. Kasu gehienetan (**% 35a**) kakahuetea **ARGENTINA**tik zetorren.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **SALMONELEK** kutsaduren **%65**a eragin ditu. **Salmonella sp** da talde honetako protagonista nagusia kasuen **% 84**an. **SESAMOA** izan da produktu protagonista **%41**eko kasuetan, **%58,5**eko kasuetan **SUDAN** jatorria zelarrik. Beste salmonelei dagokienez, **%9**a **Salmonella enteritidis**i dagokio (**OILASKOAK** eragin ditu kasuen **% 81**a eta **%88**ko kasuetan **POLONIA** izan da jatorria) eta **%7**a **Salmonella typhimuriumi**, kasu honetan ere **OILASKOA** protagonista delarik (**%59**a) eta europarrak (**%100**).

Kutsadura biologikoarekin jarraituz, **Listeria monocytogenes** bakteriak jakinarazpenen **%14**a eragin ditu, **GAZTA %30**ean inplikatu eta **IZOKIN KETUA %26**an.

Hondakinei dagokionez, **PESTIZIDAK %84,5**a dira eta **MEDIKAMENTUAK %15,5**a. Pestiziden kasuan, **BARAZKIAK** inplikatua daude kasuen **%43**an.

Metal astunei buruz esan behar da **MERKURIO**ak eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, **% 51**a. **EZPATA-ARRAINA** protagonista izan da **%61**eko kasuetan eta jatorria **ESPAINIA %57**an.

Jasotako iruzurru guztien artean, **ETIKETAN ADIERAZI GABEKO ALERGENOEK 37%ak** (91 kasu), suposatu dute.

